

KIROLETAKO DIRULAGUNTZEN INGURUKO KONTROL MOZIOA

Josu Mirena Ruiz Martinek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua ematen dion aukera baliatuz, kiroletako dirulaguntzei buruzko MOZIO hau aurkezten du, Osoko Bilkuran azter dadin. Mozio hau Pertsonen Batzordean 2016ko urtarrilaren 14ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

2016ko aurrekontuan murriztu egin dira kiroletako diru-laguntzak. Salaketa hori bera egin genuen Donostia Kiroleko kontseiluan eta horregatik, arlo honetan, emendakinak aurkeztu genituen. Gainera, aurrekontua handitzen denean, horrelako murrizketak ez ditugu ulertzen. Hauek dira, adibidez, zenbait elkarte eta jarduerak jasoko duten diru-laguntza.

	2015	2016
Zubietako Krosa	28.000	25.000
Kai Arriba arraun elkarte	110.000	100.000
Donostia klasika	90.000	80.000
Bera-bera eskubaloia	60.000	55.000
Lau Orduak	15.000	10.000
Alde Zaharra kke	6.000	3.000

Jakina denez, Udal Gobernuak ez zituen gure emendakinak onartu, eta, beraz, diru-laguntza hauek horrela geratu dira. Bestalde, Eskola Kirolerako eta kirol federatuarentzako diru-laguntza programak % 5eko igoera izatea proposatu genuen; guztira, 31.750 euro. Hori ere ez zen onartu. Baina gobernuak, kirol atal honetan, komunikazioko partida 20.000 euro igotzea erabaki du.

Martin Ibabe zinegotziak diru-laguntza nominatiboetan murrizketarik ez zegoela adierazi zuen, baina hauek, egoera dela-eta, aldatzea ere defendatu zuen; hau da, erantzuna ez zen argia izan. Bestalde, komunikazioan diru kopurua 20.000 euro handitu duela onartu zuen.

Gure interpelazioan hainbat kirol jarduera ahultzeak, diru laguntza murriztuz, kezka eta harridura sortzen gintuela adierazi genion. Gauzak horrela, Lau Orduak ekimena kinka larrian dagoela jakin

izan dugu, eta hori dela-eta honako KONTROL MOZIO hau aurkezten dugu:

1-Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, gutxienez Lau Orduak ekimenak 2015-ean jaso zuen diru-laguntza mantentzea, eta behar izanez gero handitu, eta Gipuzkoako Aldundiarekin eta Jaurlaritzarekin bat eginda, instituzioen arteko akordioa itxi dezala, aurten ere Lau Orduak egin daitezela. Horrela ere, urtero, hiriko kirol agendan txertatuta geldidadin, krosa, marathoia, Donosti Cup, Klasika, Behobia eta beste hainbat ekimen garrantzitsu bezala.

Donostian 2016eko urtarrilaren 22an

Josu Mirena Ruiz Martin
EH Bildu udal taldeko zinegotzia